



Ajangizko Udala

AJANGIZKO UDALAK 2008KO MARTXOAREN 3AN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

*Jabier Berrojalbiz Bidaguren
Angel Luis Uribarri Gondra jauna
Maria Angeles Goikolea Uriarte andrea
Beñat Erezuma Arisketa jauna
Jasone Bernaola Aurrekoetxea
Roman Etxeandia Zabala*

Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2008ko martxoaren 3an arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deidaldia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

1.- AZKEN BILERAKO AKTA IRAKURRI ETA ONEZTEA, BEHAR BADA.-

2007ko abenduaren 27an izandako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin, onartuta geratzen da.

2008ko otsailaren 11an izandako ez ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin onartuta geratzen da.

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONEZPENA, BEHAR BADA.-

- **Abenduaren 24ko 2007/56 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Minusbaliotasuna dela kausa, motordun ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantzak 4. Artikuluan, jasotzen duen salbuespena kontutan hartuta, salbuespena onartu eta 2007ko ibilgailuaren gaineko zergaren itzulketa burutzea.



Ajangizko Udala

- **Abenduaren 24ko 2007/57 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Abadetxea Kultur Etxe bilakatzeko lanen II. Faseari dagokion lanen zuzendaritzaren ordanketa onartzea.
- **Abenduaren 24ko 2007/58 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu auzoan, Maier ondoko bidean istripua izan zuen kaltetuari ordainketa
- **Abenduaren 26ko 2007/59 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ciclista Gernikesa Elkarteari, "AJANGIZKO UDALEKO III. Sari Nagusia. Bizkaiko Txapelketa"ren antolatzaile modura 1.486 euroko laguntza ematea.
- **Abenduaren 26ko 2007/60 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2003 eta 2004 urteetako zordunpenganako kobratze eskubideen bertan beherako zehaztapidetza onartzea.
- **Abenduaren 26ko 2007/61 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udaleko 2007ko etxez-etxeko laguntzarako 4/2007 espedientea onartzea.
- **Abenduaren 31ko 2007/62 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2007ko 4. Hiruhilabeteko zabor bilketa zerbitzuaren tasen padroia onartzea.
- **Abenduaren 31ko 2007/63 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** B.E.A.ri Gernikako Musika Eskolan erroldatuek eta errolda-gabeek ordaintzen dutenaren arteko diferentzia ordaintzea
- **Abenduaren 31ko 2007/64 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko urte anitzeko Plan Estrategikoa eta kudeaketa plana burutzeko erabakia
- **Urtarrilaren 8ko 2008/01 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop. enpresari, udal baimenik gabe burutzen ari diren lanak berehala gelditzeko agindua eta lizentzia behar bezala eskatzeko hilabeteko epea ematea
- **Urtarrilaren 11ko 2008/02 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 4. Zenbakidun epaitegiak eskatutakoaren arabera, Ajangizko UE1 burutzapen unitateko etxebizitza, garaje eta trasteroak esleitzeko prozedurari buruzko espedientea bidaltzea.
- **Urtarrilaren 16ko 2008/03 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Mentzeta auzora doan landabidea egokitzeko lanen II. Fasea onartzea, guztira 155.078,47 euroko aurrekontua onartuz eta Proiektu honekin batera, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak abenduaren 4ko 225/2007 Foru Aginduaren bitartez arautzen duen dirulaguntza eskaera egitea
- **Urtarrilaren 21eko 2008/04 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** A.R.F. andreari, aurkeztutako eskaeraren arabera, Ajangizko Mendieta auzoko Gorgana baserriko ganbarako leihoak aldatzeko lanetarako baimena



Ajangizko Udala

- **Urtarrilaren 29ko 2008/05 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 10eko 229/2007 Foru Dekretuak arautzen dituen 2008ko ekitaldian tokiko ekintza planak ezartzeko (tokiko agenda 21) dirulaguntza eskatzea
- **Otsailaren 1eko 2008/06 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** A.G.O. andreaki udaleko 25 aulki erabiltzeko baimena
- **Otsailaren 11ko 2008/07 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maderas Lejarzegi S.L. enpresari, J.L.A. jaunaren basotik egurra ateratzeko herri bideen erabilerarako baimena ematea.
- **Otsailaren 13ko 2008/08 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udaletxeko Idazkaritza-Artekaritza lanpostua betetzeko ohiko lehiaketarako oinarri espezifikoak.
- **Otsailaren 26ko 2008/09 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udaleko zinegotzi den Angel Luis Uribarri Gondra jauna Jauna, Alkatea kanpoan dagoen bitartean Alkatetzarako funtzioak egiteko ahalmentzea, martxoaren 10etik 14ra bitartean bi egun horiek barne.
- **Otsailaren 21eko 2008/10 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2008ko Polikiroldegiko kuotaren ordainketarako aurkeztutako laguntza eskaerak onartzea, eta E.R.F. andreaki euskera ikasteko ikastoroko matrikularen %20-a ordaintzea
- **Otsailaren 25eko 2008/11 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.D.O. jaunari Ajangizko 5. Poligonoko 102 eta 145 partzelatetik egurra ateratzeko herri bideen erabilerarako baimena ematea

3.- AJANGIZKO UDALERRIKO ERRODAREN DATUAK, 2008KO URTARRILAREN 1EAN.-

Ajangizko Udalerriko errodaren datuak hartuta, 2008ko urtarrilaren 1ean, honako emaitza hauek ditugu:

- Biztanle kopuru orokorra: 447 biztanle
- Emakumeak: 233
 - Gizonak: 214

4.- 2008 URTEKO UDAL AURREKONTUAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkate jaunak, aurrekontua aurkeztuta, gastuen partida azaltzeari ekiten dio, kapituluka.



Ajangizko Udala

Lehenengo kapituluan, aurreko aurrekontuekiko diferentzia bakarra Liburutegiko plaza eten egin dela eta Kultur Etxeko lanpostu berria sortzeko asmoa da. Gaur egun liburutegi zerbitzuak herriko beharrianak asetzeko nahikoa ez dela eta, beste lanpostu berri bat sortu beharra dago, herritarrei kultura mailan beste aukera zabalagoa emateko.

Lanpostu berria arratsaldetarako izango litzateke, arratsalde guztietan Kultur Etxea zabalik izatea baita asmoa: ikastaroak antolatu, dinamizazio lanak burutu... Dena den, lanpostuaren baldintzak zehaztu beharrean dira, beste toki batzuetako esperientzia kontutan hartu...

Bañat Erezuma, kultura arloko zinegotziak, kultura arloko dinamizatzaile bat, koordinadore bat bildatu nahi dela azaltzen du.

Kultur Etxea herriari aisialdirako toki modura zabaltzea dela asmoa adierazten du Alkate jaunak: karta jokoan aritzeko, yoga ikastaroa, hitzaldiak, dantza ikastaroa... Arratsaldetan herriari zerbitzu hori emateko norbait bilatu nahi dela, printzipioz urte betez, herriaren beharrianak zehaztu eta esperientziaren balorazioa egin ahal izateko.

Gastuekin jarraituz, 2. Kapitulan eta beti ere aurreko ekitaldiko aurrekontuarekin parekatuta denak gora egiten duela azaltzen du Alkateak.

Roman Etxeandia zinegotziak, udal ibilgailuaren mantenimendu kostua kontutan hartuta ibilgailu berria erostea merezi izango lukela adierazten du. Alkateak baietza ematen dio, baina hurrengo urterako ustea erabaki dela azaltzen du, aurton gastu asko daudelako.

1. kapituluko gasturik garrantzitsuenen artean, Protokolo gastuen 12.000 euroak daude Alkateak azaltzen duenez. Diru horren erdiarekin protokolo gastuak ordaintzea espero da, adibidez Kultur Etxearen inaugurazioa... eta beste erdiarekin Udaletxeko aldizkaria argitaratzea espero da.

Gastu juridikoek ere gora egin dutela azaltzen du Alkateak, une honetan gai ugari baitaude mahaigainean.

Aipagarri den beste partida bat, Alkatearen esanetan, Kultur Ekintzetarako partida da, horrekin dantza monitoria, ekintzak, ikastaroak... burutzeko asmoa dago.

Beñat Erezuma kultura arloko zinegotziak, herrian eratu den Kultura Batzordeak 2008 urterako ekintzak prestatu dituela azaltzen du: ikastaroak, inauteriak... eta gainera azpimarratzeko puntu modura, Hitza egunkariari emango zaion dirulaguntza aipatzen du, egunkari horren bidez herriari informazioa emateaz gain euskera bultzatzea ere bilatzen delarik.

Carbonell jaunak, Hitza euskaraz idatzitako aldizkaria izateaz gain eskualdeko informazio zuzena ematen duela aipatzen du. Dirulaguntza horrekin gainera, Ajangizerako 5-6 harpidetza lortzea ere espero dela azaltzen du, baita Ajangizko Udalarari publizitatea ere ematea ekintza jakinetan: jaiak...



Ajangizko Udala

Erezuma jaunak, Hitza gaur egun Gernika eta Bermeon banatzen dela esaten du, baita egunero Ajangizen banatu ahal izatea oraingoz ezinezkoa dela, banaketa horrek suposatzen duen kostuagatik. Orain arte modura, egunkaria ogiarekin batera banatzen jarraituko litzateke, baina gerora, suskripzioek gora egiteaz batera, Ajangizen ere eguneroko banaketa lortzea izango litzateke asmoa.

Beste proiektu batzuen artean erreka ertzen garbiketarako ere 600 euro aurreikusi direla azaltzen du Alkateak. Proiektu honetarako auzolana deitzea espero da, ibarrean batez ere zaziak kendu... beti ere egoera aztertu eta eskudun erakundeen oneritzi eta ahal bada laguntzarekin.

Roman Etxeandia jaunak, ibarrean egin behar den lanerako 600 euroekin askorik ezin izango dela egin esaten du, horretarako beste erakunde batzuk badaudela eta beraiek hartu beharko luketela horren ardura.

Aurrekontuko gastuen azalpenarekin jarraituz, 4. Kapituluak gutxitu egin dela aipatzen du Alkate jaunak, eta 6.a azaltzeari ekiten dio, bertan azaltzen baitira udalak 2008 urte honetan egin asmo dituen inbertsioak.

- 432.60000.- Lurzoruen eskuraketa: partida honekin Mentzetako bidea egokitzeko II. Faseko lanetarako eta Maier Mendieta landabidea egokitzeko I. faseko lanetarako beharrezko lurzoruen eskuraketa burutzea espero da.

- 432.60101.- Urbanizazio gastuak: Kanpantxuko argiteriaren arazoa konpontzeko partida da hau, Kanpantxun Udalak duen familia bikoitzeko etxebizitza eraikitzeko aukera kontutan hartuta, auzoan jarri beharrezko transformadore berriak suposatzen duen kostua parte baten Udalarik dagokiola kontutan hartuta. Une honetan transformadorea jartzeko proiektu bat egin behar dela azaltzen du Alkateak, horretarako aurrekontua eskatu dela aipatuz, eta datua izaten duen momentuan jabe guztiekin batzar berri bat egin beharko dela.

- 432.60102.- Irisgarritasun lanak: Ajangizko Udalak iaz irisgarritasun plana burutu zuela kontutan hartuta, aurton plan horretan azaltzen diren lan batzuk burutzeko asmoa duela aipatzen du Carbonell jaunak: Kanpantxuko frontoirako sarrera, Herriko tabernako sarrera, Mendieta plaza eskailerak... Obra haiek burutzeko dirulaguntzak lortzea espero da.

- 432.60103.- Herriko Tabernako lanak: eskailerak egokitu eta pinkia emango zaie, denbora eta erabilerak zahartu egin baititu.

- 121.60900.- Kultur Etxeko alarma: Aurton Kultur Etxea martxan jartzeko asmoa dago, horretarako mobiliarioa erosi... Kultur Etxea martxan jartzen den unean bertako edukina bermatu behar dela kontutan hartuta, sistemaren bat jartzea behar beharrezkoa da. Horretarako alarma edo beste sistemaren bat jartzeko asmoa dago, aukerak aztertu eta gero erabakiko delarik zein izango den sistema zehatza.

- 511.62210.- Nekazal bideen konponketa: Mentzetara doan bidea egokitzeko II. Faseko lanak.



Ajangizko Udala

- 511.62211.- Mentzetako bidea I. fasea: iaz burututako lanei gehitutako lanak jasoko lituzke partida honek: abiadura murrizteko badenak, ura bideratzeko lanak, zerbitzuetarako hodiak...

- 511.62212.- Maier Mendieta landabidea (I.fasea): Ingenieria Artazak burututako proiektuaren lehenengo fasea izango litzateke, horretarako lanen zuzendaritza proiektua egin duen Carlos Ortiz de Zarate jaunari berari agintzeko asmoa dagoelarik.

- 730.62810.- Argiteri publikoa: Alkateak azaltzen duenez, Ajangizen badaude argindar publikorik ez daukaten zenbait auzo eta etxebizitza. Gabon aldean herritarrei argiteri publikoaren beharriaz buruzko galdera egin zitzaion, eta jasotako beharriaz eta eskaerak ugariak izan dira. Eskaera hauek erantzun ahal izateko, 2008 urtean obra zibilaren beharriaz ez duten instalazioak burutzea jarri da kriterio modura. Kasu batzuetan fatxadetan jarritako farolak izango dira, eta beste kasu batzuetan interesdunak beraiek konprometitu dira obra zibila burutzeaz.

- 121.62902.- Ajangizko web orria: Orria egokitu eta erabilera gehiago emateko burutu beharreko aldaketak egitea espero da.

- 121.64300.- Ajangizko Toponimia eta bertako hizkera: Eusko Ikaskuntzarekin batera martxan jartzeko proiektua da, herriko toponimia jaso eta mapa batean kokatzeko asmoz. Lan hori gero Euskaltzaindiak ikuskatuko luke. Proiektua burutzeko lehenengo pausua beka bat sortzea izango litzateke, herrian zehar kontaktuak egin eta informazioa jasotzeko. Horrez gain herriko hizkera ere jasotzeko asmoa dago, gaur egun erabiltzen ez diren Ajangizko nekazal tresnen izenak eta abar galdu ez daitezten. Lan hori burutu ondoren hurrengo pausua publikazioa izango litzateke.

Alkateak azalpenak bukatuta, oroar gastuak hauek liratekela aipatzen du.

Alkatetzak 2008 urteko Udal aurrekontuen behin behineko onarpenerako aurkeztu duen zehaztapidetza osoa kontutan hartuta.

Zehaztapidetza hori osatzen duten honako dokumentu hauek azteruta:

- Ekitaldian kitatzeko sarrera eta gastuen ustezko egoera
- Aurrekontuaren edukinari eta aldaketa nagusienei buruzko memoria
- Konpromiso kredituei buruzko ziurtagiria
- Transferentzia arrunt eta kapital transferentziei buruzko eranskina
- Pertsonalari buruzko eranskina
- Udal Aurrekontuen exekuzio araua.

Aurrekontu orokorra 874.567,63 €koa dela kontutan hartuta, honako sarrera eta gastuen kapitulutan banatuta:

GASTUAK	SARRERAK
----------------	-----------------



Ajangizko Udala

CAPITULO I	170.955,91	CAPITULO I	97.000,00
CAPITULO II	206.118,40	CAPITULO II	30.000,00
CAPITULO III	-----	CAPITULO III	47.120,00
CAPITULO IV	24.948,51	CAPITULO IV	470.789,00
CAPITULO V	-----	CAPITULO V	20.655,36
CAPITULO VI	472.544,81	CAPITULO VI	151.650,00
CAPITULO VII	-----	CAPITULO VII	-----
CAPITULO IX	-----	CAPITULO IX	57.353,27
TOTAL	874.567,63	TOTAL	874.567,63

Idazkari kontuhartzailearen eta Ogasun Batzordearen aldeko txostenetan oinarrituta, 2008 urterako udal aurrekontuak botaziora aurkezten dira, honako emaitza honekin:

- Aldeko botuak: sei (6)
- Kontrakoak: ez daude (0)
- Abstentzioak: ez daude (0)

Jasotako emaitza kontutan hartuta, Alkateak 2008ko aurrekontuak behin behinez onartutzat jotzen ditu, pertsonalaren eranskina eta udal aurrekontuen exekuzio arauarekin batera.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 2 ko 10/2003 Foru Arauak, 15 artikuluan xedatzen duenaren arabera, jendaurrean azaltzen da, Udal honetako Idazkaritzan aztertzeo eta erreklamazioak aurkezteko.

Delako 10/2003 Foru Arauaren 17. artikulua arabera horretarako eskubidea izan dezaketenez interesatuek, beraien erreklamazioak 15 laneguneko epean aurkeztu ahal izango dituzte, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Erreklamazioak Udaltzatuzaren aurrean aurkeztu beharko dira.

Adierazitako informazio epea igaro ondoren erreklamazio edo oharrik aurkeztuko ez balitz, aipaturiko Aurrekontu Orokorra behin betiko onarturik dagoela ulertuko da, akordio berririk zertan hartu gabe.

5.- ERREGU ETA GALDERAK.-

Alkate jaunak, aurreko astean Bizkailurrekin izandako batzarraren berri ematen du. Batzarrean bi gairi buruz hitzegin zutela aipatzen du. Lehenengoa 24 etxebizitzetarako argi transformadorea non jarri behar den zehazteari buruzkoa. Bizkailurrek Kultur Etxera doan bidean, elizaren kontra jartzeko proposamena aurkeztu zuen. Udalak, toki horretan jarri behar izan ezker lurperatua izan beharko lukela erantzun zien, kokapenak ezin baitu inguruan burutu beharreko guztia baldintzatu. Beste alternatiba bat bidearen beste aldean, etxeak dauden tokian kokatzea litzateke, hasiera batean aurreikusita zegoen moduan. Horretarako burututako urbanizazioaren parte bat berriro apurtu beharko lukete. Bi alternatiba hauen kostuaren kalkulua egitekotan geratu ziren Bizkailurreko arduradunak.



Ajangizko Udala

Batzarraren bigarren gaia etxeetarako irisgarritasuna izan zen, hau da, bide foraletik etxeetarako sarbidea. Bizkailurrek rotonda bat egiteko proiektua agindu duela azaltzen du Alkateak, eta aste bitan proiektu horri buruzko Foru Aldundiaren erantzuna ematekotan geratu ziren.

Angel Luis Uribarri jaunak, transformadorearen gaiari dagokionez, Iberdrolak jarritako transformadorak 6 x 2 m. eskatzen dituela azaltzen du. Tamaina horretako instalazio bar eliz ondoan jartzeak, bidea bera eta inguruko irisgarritasuna hipotekatuko luke, eta hori ekiditzeko eskatu zuen udalak lurperaketa. Halere, Udalaren ustetan tokirik egokiena hasiera batean Bizkailurrek bere proiektuan aurreikusitakoa litzateke, horretarako lonja bat egina baitzuten.

Roman Etxeandia jaunak rotondaren proiektua Bizkailurrek egingo duen galdetzen du.

Uribarri jaunak proiektua jadanik burutzen ari direla erantzuten du, eta proiektu hori egina dagoenean eta rotonda zein puntutan joango den zehazten denean konkretatuko direla Serreriarako sarrera...

Etxeandia jaunak frontoiaren proiektua nola dagoen galdetzen du.

Alkateak oraindik Serreriakoekin akordio bat lortzeko dagoela aipatzen du; jabeek asmo ona erakutzi dute, urte asko daramatzatela...

Beste gai bat aztertuz, Angel Luis Uribarri jaunak, UE1eko 24 etxebizitzaren saneamendua aipatzen du. Azaltzen duenez, Ur Partzuergora teknikariak bidaltzeko eskatu da, Urruti ondoko putzu septikoak ahalmen nahikoa izango duen aztertu dezaten, eta arazoa sortu aurretik konponbidea egon daiten.

Roman Etxeandia jaunak Uruburuko saneamenduarekin dagoen arazoa Partzuergoari jakinarazi bazaio galdetzen du.

Uribarri jaunak baietz erantzuten dio, baita Partzuergoko gerentearekin batzar bat izateko zain dagoela ere, Ajangizko saneamendu arazo guztiak aztertu eta Partzuergoari konponbideak eskatzeko.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko bederatziak eta hogeirenean, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA